

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maddi Zabarotz

*Bardoze,
Lapurdi (1944)*

Aurkibidea



Biografia



Sortzez Maddi Salaberri. Ama zuen bardoztarra Maddik; aita, ordea, heletarra. Ibarre auzoko Halgaraxuria baserrian sortu zen eta bere semearekin bizi zen bertan bizi zen elkarriketa egin zen egunean. Ederki ezagutzen du Xarnegu gunea, euskaldun eta gaskoiak nahasten ziren gunea hori.

Zintak

BDZ-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarriketatzailerak(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Data:** 2013-02-15
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Ama Bardozekoa

- **Erref:** BDZ-002/002
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:00:38. **Bukatu:** 00:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Jaio zenean osabak alemanian preso egon ziren. Ama bardoztarra zen.</p>

Transkripzioa

- Aita ez zen presonder. Hola jin da gerla finitzen. Bana amaan aneak preso zien Alemanian, hek jin die "en quarante-cinq" edo "quarante-six" edo hola.
- Bai. Eta etxe honetan berean sortu zinen?
- Ni ba.
- Biak, aita eta ama... ama zen...
- Ama.
- Ama zen hemengoa?
- Ama hemengoa.
- Bardoztarra?
- Bardoztarra ama.

- Eta aita nongoa zenuen?
- Heletarra.
- Heletarra. Hona lanera edo etorria...?
- Ez, ez, ezauna, ezautu dute nik ez dakit sobera nola, eta geo aita jin da hunat. Etxen bazien arreba jadanik esposatia.
- Bai?
- Laborantxan.
- Han Heletan?
- Ba, Heletan.

2. Sei anai-arrebetatik zaharrena

- **Erref:** BDZ-002/004
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita eta ama beti Bardozen bizi izan ziren, bera ere bai. Sei seme-alaba ziren, bera zaharrena.</p>

Transkripzioa

- Aitaren arreba egon zen Heletan baserrian?
- Bai.
- Eta bera hona etorri zen?
- "Voilà".
- Eta gero beti hemen Bardozen bizi izan zara?
- Aita ba. Aita ta amak hemen hilak die.
- Eta zu, betidanik hemen...?
- Betidanik.
- Nola du izena etxe honek?
- Algaxuria.
- Algaxuria?
- Bai.
- Eta zenbat haurride zineten hemen?
- Gu sei... sei haurride.
- Zu zenbatgarrena?
- Lehena, gehiena... gehiena.
- Eta e... horretarako egon zinen orduan etxean? Gehiena egoten zen orduan?
- Be... ez etxe guzitan, bana aitak ez zien nahi noabeit laneat joan nintain, geo etxeko gustia galduko niela... "Et donc" nik, bon, pena dut ez ikustia nola, besten etxen, nola ari den lanien, nola...
- Bai zeren eta lehenago, anitzetan joaten ziren bertze tokietara neskak eta... hirira edo joaten ziren anitz...
- "Voilà"! Ni berdin zatan, edo laun... jenden launtzeko familia batetan, edo sasoiak e zonbaitzuk eiten zituzten /zuzten/ Lurden edo... edo kostan e... Bon hola, hilabete bat urtien edo hola, guti joanen nintzan. Ta geo aitak beti erten zien: "Ba, eta nik ze ein behar dut geo?" Mutila harten zen langilia etxe laborantxetan, eta launtzen zuten gizonak, harten zituzten / zuzten/ mutilak. "Zer behar dut geo nik, mutila hemen paatu?" Bo ta geo, e... denboran, e... aitamen, aitak, aitamek erten zutena ez gindien urruno xekatzen eiteko beste zeit, gue gustukua, gue gustura.

3. Aiton-amonen etxe berean bizi da

- **Erref:** BDZ-002/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bera etxean geratu zen, baina bere anai-arrebek alde egin zuten. Amona ere Bardozeroa ezkondu zen, Maddiren etxean bizi izan ziren.

Transkripzioa

- Orduan aitak nahi zuen zu hemen egotea?
- Ba.
- Eta bertzeak joan ziren?
- Ba, bestiak joan die.
- Joan dira. Eta txikiak zinetelarik orduan, zenbat zineten etxe honetan? Aita, ama...?
- Ba, aita-ama, be amatxi, amaan ama...

- Bardoztarra zen?
- Ez, aintzildarra.
- Aintzildarra?
- Eta aitatxi bardoztarra, beste kar(tier) e... aitatxi hemen sortia.
- Etxe honetan?
- Etxe huntan. Hameka haurride zien aitatxi. Eta "donc" amatxi Aintziletik jin da hunat, eta hiru haur: ama, eta geo bi seme.
- Eta erran duzu bazenituela, zer ziren e... izebak, matantak e...?
- Ba. Amak bazitien aitaan arrebak, lanien hartia Biarritzen, Baionan, e... langile... etxe... jende... "enfin"...
- Aberatsen etxean?
- Bo, aberatsa edo ... "enfin", ba, bazuten paatzeko "moyen"ak e.
- Bai, burgesak edo...?
- "Voilà, des ...", bon eta geo, erretretan, e... etxeat jin die, bere(n) aneiaan etxat, hunat. Eta hola nik ezautu ditut e... hiru ttantta, aitatxiin arrebak, hemen... hemen hil dienak.

4. Izebak euren artean noka

- **Erref:** BDZ-002/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Aitonaren arrebekin euskaraz mintzatzen zen. Amonarekin noka hitz egiten zuten izebek, amonak Maddirekin, berriz, xuka.</p>

Transkripzioa

- Eta horiekin euskaraz mintzatzen zineten?
- Ba "voilà", hek zuten eta erten "no" guri eta "hau hunat" eta itsusi... "enfin" beti e... ba ezpeginen gu ere haurrak behar dien bezalakuak eta baginden bost neska eta aneia, ta ordien [...] bezala [...] hartan ari ginden seguraz´e tira-biraka!
- Eta orduan noka mintzatzen ziren, "no"?
- Ttanttak ba, bana amatxik beti "xu".
- "Xu"?
- Beti.
- Baina amatxi ez zen Bardozekoa.
- Ez.
- Eta ttanttak-eta, elkarren artean ere, "no" [...]?
- Ba, "no". Eta amari ere, gure amari ere [...] zuten "no".
- Eta amatxiri ez zitzaion gustatzen?
- E amatxik beti erten zien eta "xu" edo "zu"... bere(n) "belle-soeur"eri "zu". Ta guri "xu". Gu kontent, ni kontent nintzan e!
- Bai. Eta hemen "no" eta hola bazen jende gehiago hola? Hemen emaztekiak hola aritzen ziren?
- Be... auzuak, heldu zielaik, ta elgarren artien, ez niz hala oroitzen e... Bana hemen "plutôt" gizonak zien elgarretaazten. Auzuak [...] gizonak. E... hen emaztiak, auzo emaztiak ez dut anitz ikusi hunat heldu e.
- Eta izeba... nola erraten duzu? "Matanta", "izeba"?
- "Ttantta".
- "Ttantta"?

- Guk "ttantta"...

- "Ttantta".

- Bana frantsesez da "ttantta".

- Eta ttantta horiek , bazituzten hola bertze gauzak hemengo euskaran erraten zituztenak?

- A hori seuraz e ba.

- Baina polita zen, edo ez zitzaizun gustatzen zuri, haiekin euskara?

- Ba, ba... ber... ber... eta eskolan hasi arte, ez nakien eskuara bezik. Aitak eta denek eskuaraz mintzatzen zaukuten, ta guk eskuaraz arrapostia emaiten.

5. Eskolara elebakar joan zen

- **Erref:** BDZ-002/007
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

<p>Bizilagunek frantsesa eta gaskoia hitz egiten zuten elkarren artean.</p>

Transkripzioa

- A, eta Bardozen, guti zineten ez? Edo anitzek bazakiten euskara?

- Bo hemen gehi... "enfin" auzuek bazuten aita bastidarra, edo ama bidaxundarra, edo hola... Hek e... frantsesa ikasi dute etxen.

- Bai. Eta bertze batzuk gaskoiak ere ez, hemen...?

- Ba. Kaskoina. Hemen, amaan aneiak eta... amak ez zien mintzatzen kaskoina, bana aitatzik ba. Eskuara, kaskoina, frantsesa gutienik. Bana auzuak heldu zielaik artu xuitzetan eta, denak kaskoinez ari zien! [...] ni(k) fitsik-fitsik konprenitzen! Fitsik...

- A eta euskaraz ez e?

- Elgarren artien. Ez.

- Elkarren artean?

- Elgarren artien, kaskoinez.

- A, eta orduan, hona etortzen zirelarik, aita ere gaskoiz aritzen zen?

- Ez. Aita frantsesez, eta [...] konprenitzen zien denboran bortxaz intutiaekilan auzuak elgarren artien. Zonbit hitz hola. Bana ez, ez... aitak e... ez du kaskoina ikasi ez. Amak ba, amak konprenitzen zien bana ez mintzatzen. Ez dut intzun ama mintzatzen.

- Eta aitatzik bai erran duzu?

- Ba, aitatzik bai.

6. Gaskoia eta euskara nahasturik

- **Erref:** BDZ-002/008
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

<p>Auzoetan gaskoia eta euskara hitz egiten zutenak nahasturik zeuden.

Inguruko herrietan badaude euskaldunak, nahiz eta gaskoia ere hitz egin.</p>

Transkripzioa

- Eta e... baziren kartierrak hemen, batzuk euskaldunak, bertzeak gaskoiak, edo denak nahasteka ziren?

- Nahasteka e.

- Nahasteka?

- Nahasteka, ba. Bardoztarren artien esposatzen zielaik, bada etxe andana bat, hek bazazkiten hiruak. Eta hemen erteko Büüntxia, onduen, hor... e... e... senar, "enfin", Léonie-k senarra "de Masparraute" zien. Hak eskuara ta frantsesa bazazkien, ta Léonie-k hiruak.

- Eta "Bardos", batzuk erraten dute: "e... e... zera... bai, ama Euskal Herrikoa nuen baina ni Bardozekoa nintzen". Eta zer, "Bardos" ez da Euskal Herrian edo...?

- "Voilà". Nik ez dut erten ahal...e... "voilà". "Enfin" ez da Eskual Herriaan erdian hasteko. Arrunt e... beste...

- Puntan?

- Herrian. Ba, ta...

- Eta ondoko... ondoko herrietan, badakite euskaraz?

- Ordien, Ahurtin poxiño... "enfin" xapo... "poxiño bat" edo "xapoño bat". Bardozen "xapoño bat" erten da bana nik intzun dut "poxiño bat" erten. Eta Bastidan badakite... ez beharbaa Bardotzen bezan bat, bana badakite. Eta Gixen, eta Bidaxunen eta hor, kaskoin gehio, zonbit eskualdun, eta geo Oraarren. Oraarrek ere hunkitzen du Bardotze, eta hor bada "les bartas" e... kartiera, Bardotzen eta hurbilena. Hor badazkite hiruak e: eskuara ere, ta kaskoina ere, frantsesa...

- Eta zu gaskoia poxi... xapo... xapoño bat?

- Poxiño bat!

- Poxiño bat badakizu gaskoiz zuk?

- Bo, zonbeit hitz hola ari zielaik, bana gue adineko auzuek, frantsesez ez dut gehio u... usai... "enfin" okasioneik intzuteko kaskoin, kaskoina.

- Eta euskara bai? Pixka bat?

- Eskuara, bo... eskuara ere, ez... ez anhitz ez. Ez anhitz.

- Eta txiki...

- Hemen...

- Bai?

- Hemen gue... nee adineko auzuek... frantsesa, beti frantsesa.

7. Irakasle frantsesak

- **Erref:** BDZ-002/009
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Eskolan frantsesez ikasi zuen ahizparekin batera. Irakasleak frantsesak ziren, gaskoia ere bazekiten.

Transkripzioa

- Eta txikitan, eskolan frantsesa dudarik ere...?
- Gu, eskuara e...?
- Eskolan...
- Eskolan?
- Frantsesez?
- Ba. Gu hasi... hasi gii... bi ahizpa ... sei urte ta ez bakarrik uzteko, ahizpa urte bat gutio, elgarrekin hasi gie eskolan. Eta errianta arrunt e... frantximenta zen, "du Boucau", bukotarra, emaztia "de la Corse", eta bizi zien eskolaan gaiñen, apartamendien, eta hak bazakien kaskoiña.
- Hark?
- Erriantak, ba. Beste aitame... haurren aitamekila eta nik intzun dut kaskoiñez ari. Eta auzuek bitzakiten eskuara, ordien heldu zien galdeitea eskuaraz e... J(aun)... "Monsieur", aipa... erten gindien "Monsieur" guk ta errientari, ze nahi zien... ze nahi zien e... jakin. Ta guk erten, nik erten nien e... "voilà" e... eskuaraz, ta hak erten zien... Hola hasi niz. Ta geo emekiño-emekiño frantsesa konprenitu.

8. Jaunartzea frantsesez eta meza latinez

- **Erref:** BDZ-002/010
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Auzoan egiten zuten jaunartzea, frantsesez. Meza latinez egiten zen.

Transkripzioa

- Eta katiximara katiximara joaten zineten?
- Ba, hemen auzuan, katexima ben, "enfin" komünionia ein arte, zortzi urtetan edo eiten zen lehen komünionia...
- Eta hori, euskaraz?
- Eta hori ez, frantsesez.
- Hori ere frantsesez?
- Ba, ba, ba.
- A bai?
- "Mais sinon" a... amak eta eskualdunak zienak familiaz, eskuara zuten e. Bana eskuara ez zakiten etxetan frantsesez zuten omen katexima e.
- Eta...
- Bana guk jada... jadanik, dena frantsesez.
- Dena frantsesez? Eta meza eta hori, euskaraz?
- A... latinez!
- Latinez?
- Ba, ba, hastian.
- Eta kantu batzuk edo ez ziren euskaraz?

- A... hastian, hastapenian ni ez niz oroit e! Ez, denak latin(ez)... Ez zen kantuik mezako otoitzak bezik e! Hek zien kantatzen e! Ene gustuko, geoztik jin die e... arte kantiak.

9. Laborantza etxea

- **Erref:** BDZ-002/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Laborantza etxea zen Maddirena. Urtearen arabera gauza bat edo bestea ekoizten zuten: ogia, artoa...</p>

Transkripzioa

- Gero orduan, etxe honetan e... hau laborantza etxea zen ez?
- Ba, ba.
- Eta zer egiten zenuten? Ogia, artoa, denetarik?
- Ba, denak.
- Denak?
- Denak, denak, denak. E... be... behar zien guziak. Geo, urtiak ez zien denak berdinak. Zonbeit urtez, bon... huts eiten zen edo arbia, edo betarraba, edo... huts, huts eina, ta geo gabe egoiten zen. Bana besteñez eiten zen ogia, orja, galaarra, artua...
- Zer egiten zen garagarrekin?
- Kabalen(d)ako.
- Kabalendako?
- Ba, behi, ardi... xerrien(d)ako, ardien(d)ako...
- Arbia ere bai, kabalendako?
- Ba, arbia ere. Negian ez zen anzilajaik oai bezala, behien(d)ako, denen(d)ako... Arbia ateatzen gindien, eta karreatzen etxeat, eta geo emaiten... Xehatuik, besteñez e... gaizki e... ire(n)sten bazuten e... zonbeit aldiz bazen [...] behiekilan.
- Eta orduan, etxean egiten zenuten guzia etxean kontsumitzen zenuten, ez?
- Ba, ba, ba, ba. Ez zen soberakinik.
- Ez zen soberakinik?
- [...] kontent arribatzia...
- Zer... eta...?
- Belarraekin eta...
- Iratzearekin eta ere egiten zenuten?
- E... idatzia pallatzeko bai, eiteko...
- Azpiak?
- Azpiak, "voilà" .

10. Umetan ia autorik ez inguruan

- **Erref:** BDZ-002/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:17:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Feriak eta merkatuak egiten ziren inguruan. Umea zenean ez zen ia autorik, pixkanaka-pixkanaka zabaltzen joan ziren auzoan.

Transkripzioa

- Eta gero, merkatura... ba... ez zen merkaturik hemen?
- Ba, ba. Bazen merkatia Bastidan, Azparnen, Peihoaden... nik uste Ahurtin e, aipatzia, nik uste e... bazen zeit... Hasteko feira bazen.
- Eta joaten zineten hara zerbait saltzera, edo...?
- A ba, bildotsak, aatxiak... Bazen otobüsa, heldu zena... Lar... "enfin" kartier... hemen Larronduan, eta juiten zen kortatik aatxia ta remorkan emaiten zen aatxia, ta jendiak otobüsien. Eta otua ukan arte.
- Bai, lehenago, zu gaztea zinelarik, auto guti zen ez, hemen?
- Ba. Guk ez gin... guk e... ez dakit e... beharbaa hamar, hamabi urte, o... aidak erosi dielaik otua, permisa pasatu dielaik lehenik... Auzuak erran zakon: "Ba! Ez duk se... ez duk... 'en pat(ois)...', frantsesez e - 'tu vas jamais passer le permis ! C'est pas la peine que tu ailles !'". Ta gio, ukan zien, nik uste aski fite, ta geo hua ere joan zen.
- Bai...
- "Mais si toi tu l'as eu, mais moi aussi eh ! Beh alors je vais essayer !" Ta "Voilà"!
- Eta hola pixkanaka...
- Ba, ta geo hiru... hiru etxek hemen bagintien geo otuak!

11. "Sorginak"

- **Erref:** BDZ-002/013
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak

Laburpena:

Halakorik ezagutu ez badu ere entzuna dauka terminoa. Azaleko arazoak sendatzen zituenik bazegoen Bardozen.

Transkripzioa

- [...] bazen, zenbait herritan, badira sorginak... Erraten dute emaztekiak, loreekin eta sendatzen zutenak.
- Ba...
- Bazen hemen holakorik?
- Bon nik intzutia, bana ez dut ezautu.
- Bai, eta entzun e...?
- A ba. Intzutia ba... bana nik ez dut sinesten! Ez zata iduritzen e... Geo baziela jendiak e... sendotzen zutena ekzema edo hola ba.
- Bai, horiek hemen, Bardozen?
- Bardotzen bazen ba, "à Mondon" ta...

- Munduenean?
- "Oui"...
- Eta zer...?
- Nor, norbeit... e... "voilà", ez dakit e... be gu, guk ez diu behartu.
- Oihenartean?
- Oihenartien ba. A... "même", e... e... o la la... beste... zona. Zona ere geldi... eiten zien sona... soiñatzen. Hartako izana niz e... senarraekilan. Eta senarraan amaekilan e, Oihenartien.
- Bai e... Vivier-ek kontatua... kontatua dit.
- "Voilà".
- Bai, hori han da, lpharragerre ondoan?
- Onduan.
- Bai.
- Eta "même", erran daukute alaba ttipia, emazteñuaan ez alaba, bana alabaan alabak, sendatzen diela. "Enfin" hori intzun diu. [...] zeen ta zonbeit medikiek erranen dute: "Ezautzen baduzie norbeit, zoazte e... ikustea." Eta beste batzuk ez dute sinesten.

12. 'Jinko ttipia'

- **Erref:** BDZ-002/014
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:19:07. **Bukatu:** 00:21:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Bere izebak 'jinko ttipia' deitzen zion belarrak ematen zizkion sasi medikuari. Honek belar haziak ematen zizkion, minaren arabekoak. Bestalde, medikua ere bizi zen inguruan. Telefonorik ez zenez, medikuaren bila joan behar izaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta nik ukan dut ttantta bat, e... igorri dute [...]. Bana azkenian, ezautzen bitzuten norbeit, ein ditu biak, izan da ere norbeiten ikusten.
- Eta bertzeenaz, ba orduan e... hori ez zen loreekin edo belarrekin, eta ez zen horien...
- Ez, bana intzutia dut e... "jinko ttipia".
- A?
- "A Arrauntz". Eta hemengo ttanttak, aitatxiin arrebak, ttantta batek ez zien osaarrik, eta hua izan omen da gizonaan ikusten e.
- Eta "jinko ttipia" erraten zioten?
- "Voilà", "jinko ttipia". Eta hak emaiten zitien belar zon(beit), dependitzen zen ze eritasun zen. Bana emaiten zitien belar e... belar e... haziak edo belar e... "enfin la plante".
- Bai, bai, bai.
- Belar e...
- Sendatzeko?
- Bai.
- Baina bon, denbora horretan, baziren ere medikuak ez, hemen? Izan ziren jadanik...
- Hemen bazien medikiak, ba. Bardotzen ez, bana Bidaxunen eta Ahurtin.
- Eta haurrak sortzeko eta, medikuak ibiltzen ziren edo...?

- Ba, eta ama, amaoina, "non, eh... sage-femme"...?
- Amañoa?
- "Eh... sage-femmes" bazien.
- Baziren?
- Bazien "des sage-femmes", Bastidan. Ta geo auzuekin.
- Auzoekin?
- Medikia ez balin bazen heldu, eta auzua, ta lehenik auzua, ta zonbeit aldiz haurra jina, ta geo medikia hel(d)u zen.
- Eta segidan bataiatzen zen ez, orduan...?
- Ba. Eta juiten zien e... edo auzua, edo... edo aita, haur e... beharraan aita, bizikletien, edo zaldiz edo... ez bitzen telefonaik medikiaan abertitzea jiteko!

13. Aitona hil zenekoa

- **Erref:** BDZ-002/015
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:24:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Norbait hiltzean auzokoak laguntzera etortzen ziren. Aitonaren kasua oroitzen du, zeinak odol arazoak zituen.

Transkripzioa

- Eta orduan, norbait hiltzen zelarik, hiltzen zelarik norbait...
- Hiltzen zela(ik), ba...
- E... auzokoak etortzen ziren ez? Laguntzera pixka bat?
- Ba, ba. Ba, ba.
- Nola pasatzen zen?
- "Enfin", ni oroitzen niz aitatziz... Aitatziz eritu da, eta biziki untsa zen. Egun batez e... bon... zeen eta e... ez bitzen e... maxinalaveik, eta ordien bazien latsa-harriak, emaiten zen ura zimentazko leku batien, ta geo bazen hola harria, han ar(i)tzeko xuitzen.
- Latsarriak?
- Latsarria. Eta aitatziz heldu da, u... ez nun bate, bate, bate untsa, ez dakinat ze gertatzen zatan, ez... ez nun egoiten ahal... Ta amak utzi du xuitzia, ta ohea, segitu du aita, ta aitatziz, ta geo medikiak eta geo... geo denboraan burian jakin dut "polyarthrite" zela. Odola da ez kurritzen zainetan. Izi(garri)... ez dakit "polyarthrite"... "Enfin" eritasuna zen e... Gangrena heldu da geo burian, ez balin bada sendotzen ahal. Ba izigarri sofritu du, eta joan da aski fite e...
- Eta orduan...?
- Ordien, ba nik e... aitatziz ganberan lo eiten nien, eta ohia, aitatziz eta amatziin ohia, eta murriaan eta beren ohiaan artien, bazen ohe ttipia. Ta ordien e... ni oroitzen niz ba... ba lo... lo... ez nien ez... ez intzun ahala... lo... lo... alegia lo! Bana intzun nitien otoitzak eta... entzun nitien.
- Hor, auzoak etorri ziren inguruan autoz?
- Ordien e... Jaun bikaria jin zen, lehenik, lehen otoitzaandako. Ta geo auzoak juiten zien kuutzien xeka, bi auzo, ta geo pizten zien argiak, u... ur bene(di)katia, ta geo "voilà"... Heldu zien beztitzeko ta hola, auzoak.
- Bai, hori... lan hori auzoek egiten zuten.

- Ba.
- Eta beilatzen zuten?
- Ba.
- Gau guzia?
- Gau guzia. Gau guzia. Aita ta... "enfin", zon(beit)... auzuak 'e zonbeit aldiz, bultaña bat edo... Hastian ba.
- Eta gero... zera... nola eramaten zuten elizara? [...]
- Korbillarraekin.
- Korbillara [...] zen?
- Ba, zaldiekin.
- Zaldiekin.

14. Dolua gizonen eta emakumeen janzkeran

- **Erref:** BDZ-002/016
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:24:13. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Dolura atxikitzen ziren bai emakume eta bai gizonak.

Transkripzioa

- Orduan, jendea, dolua atxikitzen zen, ez?
- Ba. Ba, ba...
- Nola... zenbat atxikitzen zen?
- Puf... Urtia bedeen.
- Urtea bederen?
- Bedeen.
- Eta nola...
- Ni oroitzen niz "en cinquante-huit", ttantta, delako aitatziiin arreba, hil delaik, eta bon, hamalau urte nintien, eta bazen e... "J.A.C.", gazten eta..."... enfin..." e... bazien...
- Bai...
- Eiten zitien "des théâtres, fêtes des jeunes..." eta geo bazien "des... des sorties, en car", eta e... Ja(u)n (err)etora,edo Ja(u)n bikaria, biak bazien denboran, eta joan... joan nintain heekilan. A... ez, ez, ez... Ttanta hil berria, ez, ez.
- Dolua...
- "Oui", oroitzen niz eta... ez.
- Eta e... beztimendan eta... beltzez.
- A, beltzez... beltzez.
- Eta gizonak ere bazuten zerbait ematen zutena?
- Hemen emaiten zuten eta... beltza... e... "un ruban"...
- "Un ruban"?
- Beltza. E... josten zuten e... paltuen, edo arropetan, gaiñeko arropetan, gizonak, eta emaztek e... beltzez.
- Eta atxiki... zenbat atxikitzen zuten gizonak? Urtea ere bai?
- "Voilà", hori ez niz oroit ez... Hastian, hasteko...
- Hastean?
- Hori emaiten zen eta... arropetan. Eta... meza denboran... ehorzketako meza denboran... bazuten... arropa, emaiten zena gainetik, eta "même"

kapütxaekilan. Erten zuten "mantoleta", nik uste...

- "Mantoleta"?

- "Mantoleta".

15. Erlerik bazenuten?

- **Erref:** BDZ-002/018
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:26:28. **Bukatu:** 00:29:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean erleei aitortzera joaten zen aita. Maddik beldurra zien erleei eta ez zen hauengana gerturatzen.

Transkripzioa

- Bazenituzten erleak?

- Ba.

- Erleak baziren?

- Ba, ba.

- Eta, ez dakit... galdua zen aspaldi usaia, baina batzuek erraten dute norbait hiltzen zelarik...

- Ba...

- Joan behar zela erleei erratera...

- Ba...

- Egiten zenuten?

- Aitak ba.

- Aitak egiten zuen?

- Beti.

- Beti?

- Ba. "Enfin" ni izigarri beldur nien erlez zeen eta [...] "euh... enfin... quand ça piquait"...

- Bai?

- Ez zen goxua!

- Eta orduan, zure aitatxi hil zelarik, zure aita...?

- A ba, ba, ba. Eta erleak bagintien, gu eskolan, beharbaa amatxi hil delaik, hamabost urte nintien, beharbaa ordien ez gindien gehio erleik e! [...] e... emeki-emeki e... hil die, ta ez zen berriik, eta geo... lehen... lehen... oroitzapena, baatzeko hesien, baatzeko alderritik, baatzeko aldetik zien, erliak. Ta geo eman zituzten /zuzten/... xara bitzen e... e... bordaan onduen... akazia eta... akazia ta gaztendei, ta... haitz(tei)...

- Txara?

- Xara... xara, hor. Hor jadanik urruno zien. Ez zien ahala, besteñez bero zelaik, eta pasatzen gindelaik belarreta eta, o... o la la, "quand je...", ni ez niz "enfin..." aski urrun e... pasatzen ni(n)tzan, ez ziten e... jin e...

- Eta orduan, oroitzen zara egun bat preseski zure aita gan zelarik erleei erratera norbait hil zela?

- Ba, ba... ni oroitzen niz hortaz, ba.

- Eta joa(ten)... zer erran...?

- Jo eiten zien, eta erten: "Voilà, voilà", e... aita... ez dakit nola erten den "beau-père" edo "belle-mère", edo ttantta... "zenda zela, ta..."...

- Eta orduan, atxikitzen, atxiki zuen orduan hori?

- Hori oroitzen niz ba, hori oroitzen niz.
- Eta...
- Ez dakit, besteñez hilen ziela!
- A, bertzeenez hilen zirela?
- Ba, besteñez hilen ziela erliak!
- Orduan erran behar...
- Nik ez dakit egia "enfin"... Ba gertatzen da oai... erliak eta, hazten duner... Gertatzen da norbait hiltzia, ez dakit e... ba ote denez galtzia, geo... norbait hil onduen e...
- Baina beti hori erraten zuen aitak, behar zela erran, bertzeenez hiltzen...
- Ba, eiten zien. Eiten zien aitak hori, ba.

16. Eztia egiten zuten

- **Erref:** BDZ-002/019
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:31:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleekin eztia egiten zuten. Inguruan etxe guztietan zuten eztia.

Transkripzioa

- Eta gero, erleekin, zer, bertzeenez, eztia?
- Ba, ba. Aita okupatzen zen, ba.
- Eztia. Goxoa zen eztia?
- Ba nik ez nien maite ordien... ta oai ba!
- Eta bertzerik egiten zen erleekin...?
- A bazi(en) "la cire" ere eiten zuten. E... eta...
- [...]?
- "Des planchers"... Ba, ba, ba. Ba. Holako salbuiña bezalako "des carrés"...
- Bai?
- "Marrons, enfin jaunes..."...
- Eta hori...?
- Beltzaana.
- Taula [...]?
- Hua geo... Ba. Hua geo urtzen zuten, boata bat "au bain-marie", eta terebantina emaiten, itzuliz, eta geo arrunt e... ta... "enfin" ez da hola bilakatzen bana... "liquide"...
- "Liquide"?
- "Liquide" bilakatzen zelaik, geo hua "chiffon" batekila pasatzen zen eta mubletan, edo... edo taula... ta(u)la zurez... taula zuretan.
- Eta eztia, etxe... hemen etxe guziek bazuten, eztia?
- Ba, nik uste ba. Ba, ba, ba.
- Eta denek egiten zuten aita bezala?
- E... hori ez dakit... Hori ez dakit e!
- Ba, batzuk eginen zuten?
- "Voilà"! Hori e... bakarrik aita zienez, aita Heletatik jina bitzen hunat, ez dakit bakarrik hak zienez erten edo... "Mais" ezagutzen dut e... norbeit, berrikitan bazienak erliak. Eta galdeinen dakot. Hua bardoztarra da ere... "Guérin". Ezautzen duzu?
- Hura ere euskalduna da?
- Ez.

- Ez?
- Ez... Konprenitzen du beharbaa, bana... fran(tses)...
- Paskalenea?
- "Maison Pascal". Ba, hua jiten da gue launtzea egurraan eiten, neguko egurraan eiten, eta hak ekarri dauz(ku)... ekarri dauku ba, ez e... azken urte hotan, bana bere etxeko...
- Eztia?
- Eztia.

17. Bardozeke auzoak eta auzokoak

- **Erref:** BDZ-002/021
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:31:24. **Bukatu:** 00:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

Bardozeke bizilagun motak, nobleak...

Transkripzioa

- Bazen erran zahar bat...
- A?
- Lau kartierretako izenak...
- Azken aldiko...
- Bai.
- Ba...!
- Erran!
- Ba...!
- Zer da? Zer zen?
- A ba, bada "Turc Ibarre", e... Lehenik, e... o la la... "Noble... noble Legarre"... izkiiatia...
- Hemen da...
- A, beharrik!
- Hor' e izkiiatu dut! A, "Porrota Sarrada, Turc Ibarre, Noble Legarre, 'Biba' Leguine". Eta Sarradako jendek erten zuten "Turc Sarrada, Porrota Ibarre"! Zeen eta horgo gaztiak elgarrekin eiten bitzuten bidia. Eta beste bi kartier hoiek ez die gue kartieraan onduen. Bana horgo gaztiak elgarrekilan eskolatik, katiximatik eta... bide bera zuten.
- A, orduan... bai, bai, bai... "Porrota" hori [...]...
- "'Nul'... 'nul'... ça veut dire 'nul'!"
- "Porrota Sarrada", "Turc" e... Ibarrekoak? Turkoak?
- Guk hola diu intzutia hemen.
- Bai.
- Zeen eta "Ibarre" gii... gie gu, "Ibarre".
- Eta "nobleak" Legarrekoak orduan?
- "Voilà, 'noble Legarre'"
- Eta "Biba Leguine" orduan.
- "'Biba' Leguine" e... Peioon kartiera!
- Eta hori, hemengo jendeak erraten zuen, gazteek...?
- A ba, ene ottok... ottoek eta amak' e ba, ez zien sobera aipatzen ez, bana "plutôt" motikuek zien... zuten eta... Bon neskatek ez dute ahala elgar e...

"enfin"...

- Bai, bai... ez da berdin...

- "Voilà", ez... mutikuak die e... "pour bousculer, enfin pour bagarrer, pour bousculer..." neskatuak bano!

18. Ihauteriak Bardozen

- **Erref:** BDZ-002/022
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:35:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Ihauteriak

Laburpena:

<p>Etxeko izebek ez zituzten gogoko, jatekoa eta edaria ezkutuan eman behar izaten zieten. Mutilak ziren normalean.</p>

Transkripzioa

- Zuek egiten zenuten ihauteririk edo hemen? Ihauterik?

- Ba, ba, ba, ba. A ba. Ihauteria bazen e! Gu eskolan gindelaik eta heldu zien eta gue eskolako gehienak, eta o la...! Hemengo ttanttek ez zuten maite e...! A eta guk pena gindien, zeen ta bagindakien nor zien heldu zienak. Bana amak, ikusi gabe emaiten zien... emaiten zakoten arroltziak edo zeit.

- Eta...

- Xokoleta, edo...

- Eta zer... zertara etortzen ziren?

- Heldu zien etxetaat maskekin, eta bon... mintzatzen... mintzatzen zuten, eta zeit... ze... zerbaiten edateko, edo zeit emaiten ahal gindienez, edo... Sosa ez dakit emaiten zenez... Beharbaa...

- Eta kantatzen zuten zerbait, edo...?

- Ez, bo ez, ez hemengo... ez, hori ez niz oroit ez, ez.

- Eta dantzarik eta ere ez?

- A hori ez, ez niz oroit.

- Eta musika?

- Maskak.

- Maska, bai.

- Maskak.

- Eta gero...

- A hori...

- Hori gustatzen zitzaizun?

- Ba! Gizon... mutikuak zien, ez zen neskaik e!

- Eta zertako ttanttek ez zuten maite?

- Adina zuten e! Puf, lautan hogoita aita... aitaxiin arrebak. Ez bitakit, beharbaa ez bitzen eiten hen denboran, ez dakit nik zendako ez zuten e...? Ez zien kontent e... jin ziten e... "Mais" amatxi, amatxi aintzildarra, a oroitzen niz hua... hak emaiten zakoten e... zeit, elia... eta amak e.

19. Herriko bestak eta kantak

- **Erref:** BDZ-002/023
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:35:17. **Bukatu:** 00:39:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Familiako bazkariak egiten ziren kontu kontari eta euskal kantak abestuz. Besteak lo zeudela jaisten ziren herrira.

Transkripzioa

- Eta gero, bestak, herriko bestak edo izaten ziren?
- Ba, ba.
- Eta hor ere, nola izaten ziren herriko besta horiek?
- Herriko besta? Nik beti oroitzapena dut ordien bazela e... eta familiako bazkaria.
- Etxeetan?
- Ba, etxetan. Ta geo Bardotzen, "enfin" bazen "le feu d'artifice"... Eta amak izigarri maite zien, eta heldu zen e... heldu zen e... Uhart otobüsa, Larrondoat xeka. Ta hor kartiereko jendiak joiten ginden haekilan. O! Eta ordien e... bon, ez ginden xe(ka)... ama joanen sei haurrekin, ordien gehiena [...] nintzan, ordien e... isil-isila, juiten ginden denak oheat, eta geo errana bitzataten, eta... bestiak lo... lokartzen zielaik, are, jaikitzen nintzan, eta juiten ginen amaekin! Hamar oonetan edo heldu zen otobüsa Larrondoat, oono ez zen sobera iluna ere!
- Bai, bai...
- Beti "le quinze août" zen eta... pestak.
- Eta gero, erran duzu zure izebak, ttanttek eta aitatxik, kontatzen zituzten istorioak edo hola...? Edo kantuak, edo hola...? Bazituzten?
- Ba, ba. Bazen ttantta, azkena, hamekaarrena, egona Miarritzen, eta hua diu gehien luzenik eta ezautu. Ba, hua, ba.
- Eta hark kantuak edo bertsoak, edo... bazizkien?
- Ba, ba. E... kantiak, eskuaraz kantiak. Aats guziz, jalgitzen ginden baatzeat ttanttaekilan, eta izarrer so, eta kantatzen zien e... ba, ba!
- Oroitzen zara zer kantu ziren?
- O la la... ez so(bera)... Ba, ba, ba! "Hiru mutxurdin, bat alarguntsa", badakit hori bazela. Geo e... "Ikusten duzu goizean". Eta hori beti... beti e... "Ikusten duzu goizean, argia hasten denean, etxe xuri..."
- "Aitzin xuri bat"...
- "Lau haritz ondoren erdi... ordian"...
- "Xakur xuri bat..."... "non, je sais pas..."... Hasteko, hemen, argi delaik, baduzu borda bat, eta hola, lau haitz ondoren erdian. Eta nik usten nien ttanttak kantatzen ziela etxe... borda hortako istorioa! Ene... ene ideia hola, bana kantu hori betitik e... "Andre Madalen", eta...
- Orduan hori, lehenago bazen, orduan hori, Bardozen lehenago, bazakizkiten jendeek horiek, kanturik, eta...?
- Ba, ba, ba...
- Eta gero hori galdu da?
- Ari zien kantuz ba, gure e... "enfin" amaan ttanttak eta ari zien kantuz, ba.
- Eta ikusi duzu Bardozen, "le feu au cul" dantza?
- Ez, hori ez...
- Ihauterian... Ez?
- Hori ez.
- Ez? Hori berria da?
- Hori ez niz oroit ni...Ihauteriaz etxetik joanik, pesta... pestaan eitea ez, ez

niz oroit.

- "Sua dantza"?

- A ez. Plazan berdin hori... Plazako... bana gu, hemen eskolako la... launak zien heldu e... etxeat...

- A, eskolakoak?

- Eskolako...

- Zuen... zuen adinekoak?

- Handio.

- Handiagoak?

- Gu bano handiokoak. Be ta geo heldu zien gue buuz, eta gu niarrez, hartako ere... hartako ere ttanttak e... samurtzen zien, zeen eta gu niarrez ikusteaz e, gue... gue penaz zi... zitien [...] seurraz e.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com